

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

2023ko lan-eskaintza publikoa onartzea

Lehendakaritzaren 2023ko abenduaren 5ko ebazpenaren bidez, 2023rako lan-eskaintza publikoa onartu da, eduki honekin:

Langile berriak sartzeko plazak - karrerako funtzionarioa.

1. Izena: Peoi balioaniztuna.

Eskala: administrazio berezia.

Azpieskala: zerbitzu bereziak.

Mota: ofizioetako langileak.

Sailkapen taldea: C.

Azpitaldea: C2.

Lanpostu hutsen kopurua: 1.

Titulazioa: DBH edo baliokidea.

Dedikazioa: Ehuneko berrogeita hamar (ehuneko 50).

Hizkuntza-eskakizuna: 2. Derrigortasun-data igarota.

Beste baldintza batzuk: B motako gidabaimena.

Eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da argitara.

Zalduondo, 2023ko abenduaren 5a

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU